



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMOIA. SR.ÍA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorritik, **2026ko MAIATZAREN 5ean** egingo den bilerarako deia egiten dizut. Bilera Gasteizen egingo da, Lehendakariatzako egoitzan, 10:00etan. Sarbide telematikoa ere egongo da. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, le convoco a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakariatza, a las 10:00 horas del día **5 DE MAYO DE 2026**. Se dispondrá de acceso vía telemática, con el siguiente

GAI-ZERRENDA**ORDEN DEL DÍA**

Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Dekretu-proiektua, "Romo FC" kirol-kluba onura publikokoa dela aitortzekoa.

2

Proyecto de Decreto por el que se declara de utilidad pública al Club Deportivo "Romo FC".

Erabaki-proposamena, zeinaren bidez baimentzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko museo eta bilduma publikoen titularrekin sinatu beharreko lankidetzahitzarmenaren eredia, EMSIME aplikazio museografikoa batera ustiatzeko eta informazioa web bidez trukatzeko oinarriak ezartzeko.

3

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza el modelo de convenio a suscribir con los titulares de Museos y Colecciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el objetivo de sentar las bases para la explotación conjunta de la aplicación museográfica EMSIME y el intercambio de información vía web.

OGASUN ETA FINANTZA SAILA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



- | | | |
|--|---|--|
| <p>Dekretu-proiektua, 5413 Programan (Teknologia) 1.500.000 euroren kredituak gaitzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 9211 Programan (Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak) diru-sarrerak lortu direlako.</p> | 4 | <p>Proyecto de Decreto por el que se habilitan créditos en el Programa 5413 - Tecnología, por ingresos en el Programa 9211 - Relaciones Financieras con Sector Público Español, del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2026, por importe de 1.500.000 euros.</p> |
| <p>Erabaki-proposamena, Ekonomia Ituna zabaltzeko, gizarteratzeko eta nazioartekotzeko estrategia onartzen duena.</p> | 5 | <p>Propuesta de Acuerdo por el que se aprueba la Estrategia de difusión, socialización e internacionalización del Concierto Económico.</p> |
| <p>Erabaki-proposamena, kreditu-kontuen erako kreditu eragiketen formalizazioa baimentzekoa.</p> | 6 | <p>Propuesta de Acuerdo de autorización para la formalización de operaciones de crédito, en forma de cuentas de crédito.</p> |
| <p>Erabaki-proposamena, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa Euskal Herriko Unibertsitateari (EHU), Lehiaren Zuzenbideko aditu titulua finantzatzeko, 2026/2027 ikasturtean.</p> | 7 | <p>Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), para financiar el Título de Experto/a en Derecho de la Competencia, en el curso académico 2026/2027.</p> |

**GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO
DIGITAL ETA
AUTOGOBERNUAREN SAILA**

**DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO**

- | | | |
|--|----|---|
| <p>Dekretu-proiektua, zeinaren bidez onartzen baita Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa-Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren izena aldatzea, eta horren ordez "Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa-Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua" jartzea.</p> | 8 | <p>Proyecto de Decreto por el que se aprueba el cambio de denominación del Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa-Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa por el de Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa-Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua.</p> |
| <p>Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostu-zerrenda onartzen duen Dekretua.</p> | 9 | <p>Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo de personal funcionario de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.</p> |
| <p>Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa 2025eko Balantze-txostena, gardentasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren sektore publikoan duen ezarpen-mailari buruzkoa, eta onarpena ematekoa gardentasuna eta gobernu ona bultzatzen jarraitzeko neurri batzuei.</p> | 10 | <p>Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Informe de Balance 2025 sobre el grado de implantación de la transparencia en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y su sector público, y se aprueban medidas para proseguir con el impulso a la transparencia y el buen gobierno.</p> |
| <p>Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.</p> | 11 | <p>Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.</p> |



SEGURTASUN SAILA

Erabaki-proposamena, zeinaren bidez baimena ematen baita lankidetzahitzarmen bat izenpetzeko Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Kriminologiaren Euskal Institutuaren (KREI) bitartez kriminologia, biktimologia eta segurtasun objektibo eta subjektiboaren arloetan lan-metodologia egokia aztertu, garatu eta aplikatzeko, bai eta prestakuntzarako ere.

12 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), para el estudio, el desarrollo y la aplicación, por medio del Instituto Vasco de Criminología (IVAC/KREI), de una metodología de trabajo idónea en materia de criminología, victimología y de seguridad objetiva y subjetiva, y para la formación.

HEZKUNTZA SAILA

Erabaki-proposamena, unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuei zuzeneko dirulaguntzak ematekoa, parte har dezaten lehen hezkuntzako ikasleentzako eskolaz kanpoko errefortzuek neurrian, irakurtzeko eta matematikako gaitasunei dagokienez.

13 Propuesta de Acuerdo de concesión de subvenciones directas a centros privados concertados de enseñanza no universitaria, para la participación en la medida de refuerzo extraescolar en competencia lectora y matemática para el alumnado de primaria.

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

Erabaki-proposamena, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko 2021-2024 Estrategiaren Ebaluazioa aintzat hartzeko eta Legebiltzarrera bidaltzeko.

14 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento y remisión al Parlamento de la Evaluación de la Estrategia de Promoción del Tercer Sector Social de Euskadi 2021-2024.

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko, 2026ko ekitaldiko deialdi hau finantzatzeko: zuzeneko ordaintzen erako eskuhartzeak, Europako Nekazaritza Funtzaren (NBEF) kontura finantzatuak, Nekazaritza Politika Bateratuaren barrukoak.

15 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar la convocatoria, para el ejercicio 2026, de las intervenciones en forma de pagos directos financiadas con cargo al Fondo Europeo Agrícola (FEAGA), incluidas en la Política Agrícola Común.

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS



- | | | |
|--|----|---|
| Dekretu-proiektua, dekretu hauek indargabetzekoa: Eibarko Bulego Judizialean, Donostiako Bulego Judizialean, Gipuzkoako Probintzia Auzitegian eta bi barruti judizial horietako bake-epaitegietan Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen lanpostu-zerrendak onartzekoak. | 16 | Proyecto de Decreto de derogación de los decretos de aprobación de las relaciones de puestos de trabajo del personal al servicio de la Administración de Justicia, correspondientes a la Oficina Judicial de Eibar, a la Oficina Judicial de Donostia/San Sebastián, a la Audiencia Provincial de Gipuzkoa, y a los Juzgados de Paz de ambos partidos judiciales. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justiziaren VI. Plana (2025-2029). | 17 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del VI Plan de Justicia Juvenil de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2025-2029. |

**IZENDAPENAK ETA KARGU-
KENTZEAK
LEGEBILTZAR-EKIMENAK**

**NOMBRAMIENTOS Y CESES
INICIATIVAS PARLAMENTARIAS**

Vitoria-Gasteizen, 2026ko apirilaren 30ean. En Vitoria-Gasteiz, 30 de abril de 2026.

**IZPTA./FDO.: UBARRECHENA CID, MARIA.
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU,
JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA
CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO,
SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO**



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

LEHENDAKARIAREN BAIMENA, GOBERNU KONTSEILUAREN 2026ko MAIATZAREN 5eko BILERA TELEMATIKOKI EGITEKO

2022ko maiatzaren 24an, Gobernu Kontseiluak Erabaki bat hartu zuen, Gobernu Kontseiluaren bilera telematikoak puntualki egiteko jarraibideak onartzen dituen, eta erabaki horren arabera, beharrezkoa da lehendakariak, berariaz eta arrazoituta, bilera horiek telematikoki egitea baimentzea.

Osasun sailburuak, Alberto Martínez Ruiz, maiatzaren 5ean, ezin izango da Vitoria-Gasteizen egingo den Gobernu Kontseiluaren bilerara fisikoki bertaratu.

Aztergaien zerrenda ohikoa dela ikusita eta ebatzi beharreko gaiak kontuan hartuta, egokia da bilera telematikoa egitea, arestian aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakian adierazitako baliabide teknikoak erabiliz.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek aukera ematen dute, bideokonferentzia bidez, irudia eta soinua bi noranzkoetan eta aldi berean komunikatzeko; eta hortaz, geografikoki urruti dauden bi pertsonaren edo pertsona-talderen arteko denbora errealeko ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izateko. Halaber, bermatu egiten dute eztabaidetan eta hausnarketetan askatasunez parte hartzea.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek modu egokian bermatzen dituzte, halaber, parte-hartzaileen identitatea eta segurtasuna, kanpoko interferentziarik ez egotea, esku hartzeko askatasuna eta eztabaiden izaera sekretua edo erreserbatua.

AUTORIZACIÓN DEL LEHENDAKARI PARA QUE LA REUNIÓN DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE 5 DE MAYO DE 2026 SE CELEBRE DE FORMA TELEMÁTICA

Con fecha de 24 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno adoptó un Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la celebración puntual de reuniones telemáticas de Consejo de Gobierno, siendo necesario conforme al mismo que el Lehendakari autorice, de forma expresa y motivada, la celebración de dichas reuniones de forma telemática.

El Consejero de Salud, D. Alberto Martínez Ruiz, no podrá asistir físicamente a la reunión del Consejo de Gobierno que se celebrará el 5 de mayo en Vitoria-Gasteiz.

Dado el carácter ordinario del orden del día, y a la vista de los asuntos a resolver, procede realizar una reunión telemática utilizando los medios técnicos que se indican en el Acuerdo de Consejo de Gobierno antes referido.

Los medios técnicos indicados en esta autorización permiten, mediante videoconferencia, la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido y, por tanto, la interacción visual, auditiva y oral en tiempo real entre dos personas o grupos de personas geográficamente alejadas, garantizando la libre participación en los debates y deliberaciones.

Los medios técnicos indicados en esta autorización garantizan también de forma adecuada la identidad y seguridad de las personas participantes, la ausencia de interferencias externas, la libertad de intervención y el carácter secreto o reservado de los debates.



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

Hori horrela izanik,

En su virtud,

HONAKOAK BAIMENTZEN DITUT

AUTORIZO

1.- Gobernu Kontseiluak 2026ko maiatzaren 5ean egingo duen bileran telematikoki egiteko baimena ematen dut, honako Baimen honetan adierazita dauden baldintzetan.

1.- Que la reunión del Consejo de Gobierno de 5 de mayo de 2026, se celebre de forma telemática, en los términos expresados en la presente Autorización.

2.- Telematikoki konektatuko diren Gobernu Kontseiluko kideek ZOOM plataforma digitala erabili beharko dute; eta, horretarako, esteka honetan sartu beharko dute:

<https://euskadi.zoom.us/j/96229025635>

2.- Que las y los miembros del Consejo de Gobierno que se conecten telemáticamente, deberán de utilizar la plataforma digital ZOOM, accediendo al siguiente enlace:

<https://euskadi.zoom.us/j/96229025635>

Bileraren identifikazio zenbakia: 962 2902 5635

ID de reunión: 962 2902 5635

Pasahitza: 972733

Código de acceso: 972733

3.- Honako baimen hau bilkura-deialdiari eransteko baimena ematen dut, bilerari dagokion gai-zerrendarekin batera.

3.- Que la presente autorización se incorpore a la convocatoria de la sesión junto con el orden del día.

Vitoria-Gasteizen, digitalki sinatuta.

IMANOL PRADALES GIL.



Imanol Pradales Gil
Lehendakaria
Eusko Jaurlaritzan
Gobierno Vasco

2026.04.29

15:08:34

+02'00'

Lehendakaria.